



Jose Antonio  
Arana  
Martixa

*Bibliografo eta musikologo  
nekaezina*

(1931-2011)

BIDeGILEAK

Egilea:

**Ander Arana Bareño**



## JOSE ANTONIO ARANA MARTIXA

(1931-2011)

# Familiari estu lotutako bizitza

**J**ose Antonio Arana Martixa Gernika-Lumon jaio zen, 1931ko martxoaren 10ean –Espainian Bigarren Errepublikan ezarri baino hilabete lehenago–, eta bere etxean hil zen, 2011ko apirilaren 27an –Gernikako bonbardaketaren 74. urteurrenaren biharamunean–. Gure artean eman zituen laurogei urte oparoetan, denetarik bizi eta ezagutu behar izan zuten: errepublika ernamuntzen ari zenean jaio zen; gerra zibilaren eta erbestearen mikatza dastatu behar izan zuten umetan; frankismoaren ankerkeria larrutik ordaindu

behar izan zuten gero; eta azkenean, haren argia itzali zen, noiz eta trantsizioaren garai nahasi eta katramilatsuen ostean herri honetan esperantzaren leihoa irekitzen hasi zenean. Bitarte horretan guztian bere onena eman zuten beti, ordainean ezer eskatu gabe, eta, zinez, denetarik egin behar izan zuten; izan ere, 1876ko uztailaren 21ean foruak abolitu zirenez geroztik ainubean izan zen euskal kultura, harik eta Jose Antonio Arana Martixaren gisako bidegileei esker euskal kultura pizkunde berri baten argi-printzak gozaten hasi zen arte.

Hasieratik bertatik azpimarratu dugu Bigarren Errepublikarekin batera –edo ia batera– sortu zela Jose Antonio Arana Martixa; izan ere, apirilaren 14ko aldarrikapen hura erabakigarria izan zen gure herriaren historiari begira. Bi egun lehenago, apirilaren 12an, udal hauteskundeak egin ziren, eta



Gregorio Arana Eskibel eta Cristina Martixa Rementeria gurasoekin (1936)

Gernikan EAJren hautagai Seber Altube arrasatearra izendatu zuten alkate. Aurrerago ikusiko dugunez, hortaz, gure bidegileari jaio zen unetik beretik gurutzatu zitzaizkion bidean bere ibileran aparteko eragina izan zuten beste bidegile batzuk: Resurrección María Azkue, Jose Migel Barandiaran, Karmelo eta Bonifazio Etxegarai, Raimundo Olabide, Henrike Knörr... Bilduma honetan jadanik agertu diren bidegileak. Jose Antonio berak, hain zuzen, biografia batzuk idatzi zituen *Bidegileak* bilduma honetarako: R. M. Azkue (1993), Julio Urkixo (1993), Aita Donostia (2001) eta Bonifazio Etxegarairena (2004).

## «EUSKAL HERRIAN SORTU NINDUTEN AITA ETA AMARI»

Gregorio Arana Eskibel Muxikan (Bizkaia) jaio zen 1902an, eta Cristina Martixa Rementeria, berriz, Gernikan, 1906an. Gregorio barku kapitaina zen –antza denez, Estatuko kapitainik gazteena izan zen, soilik hemeretzi urte zituela atera baitzuen titulua–. Sota y Aznar konpainian egiten zuen lan, eta Jose Antoniok harrotasun

puntu batez ekartzen zuen gogora beti aitak atera zituela ezkutuan Arroxelara (Frantzia), *Axpemendi* itsasontziko lehen ofiziala zelarik, Eusko Jaurlaritzaren dibisak eta ondasunak. Jose Antonioren amak ere handik gutxira alde egin behar izan zuen sorlekutik, bere bi ahizpa eta lau seme-alaba txikiek: Jose Antonio, Mari Tere, Ana Mari eta Jabier, aldean beste ezer ez zutela. Izan ere, Kondor Legioak 1937ko apirilaren 26an Gernika suntsitu baino egun batzuk lehenago, familia Muxikara aldatu zen. Jose Antonio txikiak sei urte besterik ez zituen, eta ondo gogoan zeukan hango muino batetik ikusi zuela naziek Francoren aginduz egindako triskantzua. Halaxe hasi zen haientzat orduko euskal familia askok eta askok egin behar izan zuten noraezeko ibilera negargarria. Muxikatik Bilbora joan ziren, eta Mallo-nako baserri batean hilabete inguru egin ondoren, Laredora eroan zituen osaba Agustinek, zeina Jose Estornes Lasa gudarrien komandantearen gidari baitzebilien. Han jaio zen bosgarren semea, Kike, ama Cristina, ihesari ekin behar izan zionean, haurdun zegoen-eta.



Erbestean (Villemandeur, Frantzia), 1937an. Atzean ama eta izebak, eta Jose Antonioren ondoan bere neba-arreba Mari Tere, Ana Mari eta Jabier

Frantziako erbestealdia etorri zen gero. Cristina Martixa, bere bi ahizpak –Kontxa eta Teresa– eta bost seme-alabak itsasontziz iritsi ziren Nantes-ko portura, eta handik Villemandeur-era, non Jose Antonio txikiak heste-sukarra harrapatu eta Montargis-eko ospitalean denboralditxo bat eman behar izan baitzuen isolatuta. Azkenean, Île de Ré-ko Rivedoux-en jarri ziren bizitzen, eta aita Arroxelan-eta zebilenez, familiak berriro elkartzeko modua izan zuen.



Erbestean (Rivedoux, Frantzia), 1938an.  
Ezkerretik hasita lehenengoa da Jose Antonio

Bitarte horretan, seigarren semea –Eduardo– izan zuen amak, eta 1939an, gerra bukatutakoan, aurrena Bilbora eta hurrena Muxikara itzuli ziren denak, harik eta 1950ean Gernikan behin betiko kokatu ziren arte. Orduan heldu ziren mundu honetara Begoña, Mari Kontxi eta Amaia ahizpak, eta orduan hasi ziren Gregorio eta Cristina familia ahal bezala aurrera ateratzen.

Frantziatik itzultzean ezin zuenez barkuko kapitain izaten jarraitu eta sei seme-alaba



Arana Martixa neba-arrebak Gernika-Lumoko Juntetxearen atarian: Jose Antonio, Ana Mari, Mari Tere, Jabier, Kike, Eduardo, Bego, Mari Kontxi eta Amaia

elikatu behar zituenez, Gregoriok saltzaile jardun zuen bere bizikletarekin herriz herri, baina halako batean bere negozio propioa ireki zuen herrian, eta Jose Antoniok, seme nagusiena izanik, hari laguntzen hasi behar izan zuen. Hori dela-eta, ikasketak alde batera utzi behar izan zituen behin-behinekoz. Ordurako lau seminariotan ego-  
na zen, eta ereinda zeraman bere barruan liburuekiko eta musikarekiko zaletasuna; izan ere, Bergarako seminarioan Andres Mañarikua izan zuen irakasle, eta Gastei-

zen berriro elkartu zirelarik, Mañarikuak hango liburutegia antolatzen laguntzeko eskatu zion Jose Antonio gazteari, eta halaxe sortu zitzaion betiko iraungo zion liburumina. Gasteizko seminarioan Julio Valdés Goikoetxea musikagile eta organo-jotzaile ospetsua ere izan zuen maisu, eta haren eskoletan hasi zen solfeoan eta harmonian lehen urratsak egiten.

Apaiztegitik irten eta bere kabuz jarraitu zuen ikasten. Halatan, errebalida-azterketa egitera joan zen Valladolidera, eta ohorezko matrikula poltsikoan itzuli zen etxera.



Andres Mañarikuaren aholkuei jarraikiz –«erdu Deustura Zuzenbidea ikasten; Zuzenbideak bide zabalak ditu, askotarako balio du, eta Deustun ondo ikasten da»–, Deustun egin zuen Zuzenbideko karrera, eta karrera bukatutakoan, 1954an, aitaren biltegian jarraitu zuen lanean, baina asperitu egiten zen nonbait, eta Ekonomia Zientziak ikasten hasi zen Bilboko fakultate ireki berrian.

### «EUSKAL HERRIAN IZATEN LAGUNTZEN DIDAN MAITEDERRI»

Jose Antonio Arana Martixa jaio zen urtean (1931), Raimundo Olabide euskaltzainak Itun Berriaren itzulpena argitaratu zuen Bilbon. Gobernuak jesulagunak erbestera egotzi zituenean, Olabide Arantzazun ezkutatu zen, eta handik Gernikara joan zen bizitzera. Han harrapatu zuen gerra zibilak. Olabidek Gernikan izan zituen

Jose Antonio ikasle fina izan zen. Bilbon Ekonomia ikasi zuen garaikoa da argazkia (1958)

adiskideen artean Angel Bareño zegoen, eta haren bigarren alaba jaio zenean, Maiteder deitzeko proposatu zion Olabidek, Lizardiren olerki bat gogoan:

*Ez adi beldur, nere Maiteder:  
baserriz landa nai aunat ager-  
-arazi, bazterrik-bazter,  
arroki; ezpaitun ezer  
lurbiran ederrik i bezain eder!*

Ekonomia Zientziak ikasten hasi zen urtean ezagutu zuen Jose Antoniok Maiteder Bareño Omaetxebarria, handik au-



Jose Antonio eta Maiteder bikote gaztea, Gregorio Arana aitarekin (1959)

rrera bere bizitzako hauspoa izango zena. 1961eko maiatzaren 31n ezkondu ziren, eta bere Seat 600 zaharra hartuta Euskal Herri osoan barrena egin zuten eztei-bidaia. Bost seme-alaba eduki zituzten, eta hamaika biloba; halabeharrak eragotzi zion, ordea, hamaikagarrena ezagutzea, hala nola, hi-



Jose Antonio eta Maiteder 1961eko maiatzaren 31n ezkondu ziren, Gernikako Andra Mari parrokiari



labete eskas batengatik, urrezko ezteiak ospatu ahal izatea Arantzazun –aurrerago ikusiko dugunez, Arantzazuk aparteko tokia hartzen zuen Jose Antonioren gogoan eta bihotzean–.

Izan ere, bizitzan zerbaitek gogobetetzen baldin bazuen Jose Antonio, hori bere familia zen, bere seme-alabez harro azaltzen baitzen noiznahi eta nonahi; seme-alabak aitaz bezainbat, bidenabar esanda. Seme-alaboi dagokigunez, egia esatera, harrotasunari miresmena erantsi behar zaio, aitarekikoa nahiz amarekikoa; amarekikoa ere bai, jakina, indar eta kemen aparta behar baitira bizitzan zehar bizi behar izan zituzten estutasunak –kartzelaldiak, gaixotasunak, diru-eskasiak...– gainditzeko eta familiaren zama ia osoa bere gain hartzeko, senarra bere paper, partitura, liburu, fitxa eta enparauetan murgilduta zebilen bitartean.

Nolanahi ere, Jose Antoniok beti gordetzen zuen bere agendan tartetxoren bat, esate baterako mendira etxekoekin joateko. Urtero, Gernikako jaietan, abuztuaren 15eko meza nagusia bukatutakoan, familia hartu eta Arantzazura joaten zen, opor

egun batzuk bertako ostatuan igarotzera. Han, frantziskotarren alboan eta Urbia-  
ren magalean, zoriontsu izateko behar zuen guztia zeukan: musika, liburuak eta familia. Goizean goiz, gregorianoa abes-  
tera joan; gosaldu ondoren, emaztearekin eta seme-alabekin Urbiako zelaietan gora Aketegi eta Aizkorriko tontorrak zapaldu, eta arratsaldean, berriz, bere lagun fraideekin liburuaren artean ibili: besterik ez zuen behar gizonak zoriontsu izateko.



Jose Antoniok mendia maite zuen. Hemen Ander semearekin ikus dezakegu Urbia aldean 1971ko abuztuan



# Herrigintzan murgildua gaztetatik

Oporretan urtero joaten zen Arantzazura familiarekin eta lagunekin. Argazkian Klaus Niebel falta da, argazkilaria bera izaten zelako ia beti (1975eko abuztua)

«**SAKONKI MAITE DET  
NERE HERRIA, SAKONKI  
AMORRAZTEN DIT NERE  
HERRIAK**»

Arantzazuko oporraldi haietako unerik lasaigarrienetakoa arratsaldean gertatzen zen. *Goiko Benta* tabernako kanpoaldean, haurrak aldapan gora eta behera jolasten ziren bitartean, nagusiak pitxer bat zerbezaren inguruan jesarri eta iluntzera arte berriketan egoten zirenean. Tabernako horman zintzilik afixa bat zegoen, eta inork gutxik erreparatu zion hari; bai, ordea, Jose Antonioren begi zoliak. Afixa

hartan, Remigio Mendiburu (1931-1990) hondarribiarrak Jorge Oteiza (1908-2003) oriotarraren irudia eta bertso bat uztartzen zituen, eta Jose Antoniok *Goiko Bentako* ugazabandreaki eskatu zion afixa hura aldi baterako laga ziezaion, buruan zerabilen asmo handi bat gorpuzteko balioko zio-la-eta. Izan ere, Jose Antoniok beti zuen ideiarene edo proiekturen bat gogoan, eta horietako gehienak burutu bazituen ere, bakarren batzuk egin gabe gelditu zitzaizkion, etxeko bulegoko apalategietan pilatuta zituen ehunka fitxa eta karpeten artean lo.

Baina ez gaitezen azkarregi joan, eta egin dezagun urte batzuk atzera. Arestian esan dugunez, Jose Antonio Arana Maiteder Barñorekin ezkondu zen 1961ean; handik urtebetera jaio zen lehenengo alaba, Maiteder, eta 1965erako, berriz, Cristina eta Ander. Gero etorri ziren Olatz eta Garikoitz. Hots, seme-alaben hezkuntzaz arduratzen hasteko ordua zen, baina askatasunik gabeko giro itogarri hartan ez zegoen euskaraz ikasterik. Jose Antonio eta beste guraso-talde bat herriko parrokoarengana joan ziren laguntza eske, parrokiak bazituelako lokal batzuk hutsik. Fernando Bizkarra parrokoak ezetza eman zien hasiera batean, baina Jose Antoniok eta beste gurasoek herrian bostehun sinadura baino gehiago bildu zituztenean, parrokoak amore eman behar izan zuen, eta halaxe sortu zen, 1966ko urriaren 12arekin, Gernikako Seber Altube ikastola. Orduan ezagutu zuen, besteak beste, kontakizun honen hasieran berean nabarmendu dugun bidegileetako bat, Henrike Knörr (1947-2008), ikastolan maisu ibilitakoa harik eta espexera eraman zuten arte.

Ez zen hori izan, dena den, Jose Antoniok herriko parrokoari bota eta irabazi zion



Jose Antonio eta Maiteder, bost seme-alabekin eta Maiteder bilobarekin, Gernikako arbola zaharraren aurrean, 69 urte bete zituen egunean

erronka bakarra. Zenbait urte lehenago, *Brisas Guerniquesas* tokiko aldizkarian idazten hasi zen, eta aldizkariaren zuzendari izan zen gero. Hasieran gaztelania hutsean argitaratzen zen aldizkaria, baina Jose Antonio zuzendaritzan sartu zenean ele bitan hasi ziren aldizkaria argitaratzen. Halako batean, ordea, Fernando Bizkarra parrokoak galarazi egin zien euskara erabiltzea, herriko bizilagun batzuk kexatu

zirelako aitzakiarekin, baina hala eta guztiz ere aldizkaria bi hizkuntzatan argitaratzen jarraitu zuten.

Apurka-apurka, beraz, herrigintzan nabarmentzen hasi zen, eta horrek nahigabe bat baino gehiago ekarriko zion. Gernikako Astra arma-fabrikari langile zegoenean jasotako salaketa funsgabe baten erruz, Basauriko espetxera eraman zuten 1968an. Harako hartan lanpostu on bat galdu bazuen ere, bizitza osorako lagun handi bat eginda –eta are, anaia bat– alde egin zuen handik: Klaus Niebel Zapp (1937-2012). Klausek altzairu-enpresa batetako esportazio-departamentuan lan egiten zuen, eta bere enpresak Gernikara bidali zuen gaztelania ikastera, bai eta zoragarri ikasi ere Astra arma-fabrikari eman zuen urtebetean. Baina Euskal Herriaz eta euskaraz maitemindu zen, eta 1975etik aurrera, urtero-urtero, hutsik egin gabe, emazte Gisela eta bi semeak hartuta –Ingo eta Guido– Gernikan egiten zituen udako oporrak, Jose Antonioren ondo-ondoan, harik eta bizitzaren atzaparrek eta gaixotasunak etxean gelditzera behartu zuten arte. Durangoko Azokak 2000ko «Argizaiola» saria



Emaztearekin eta Klaus Niebel lagun min alemaniararekin, Egilazko Aizkomendi trikuharrian (1994ko uda)

eman zion, «euskal munduaren enbaxadorerik onena izateagatik Alemanian». Klaus Bickenbach-eko bere etxean hil zen, Alemanian, 2012ko abuztuaren 31n.

Bizitzaren atzaparrek Jose Antonio eta bere inguru hurbilena ere astindu zituzten. Francoren diktaduraren azken urteetan asko eta asko izan ziren askatasunaren aldeko konpromisoa hartu zutenak; horien artean, Iñaki Garai eta Blanca Salegi, Jose Antonioren eta Maitederren lagun minak.



Klaus eta Jose Antonio Gernikako Europa Parkean, W. von Humboldt-en omenezko eskulturaren aurrean (2000ko abendua)

Bada, bikoteak ETA erakunde armatuko bi kide zituen ezkutatuta etxean. Guardia Zibila haien etxean sartu zen 1975eko maiatzaren 15ean, eta hantxe bertan hil zituzten Iñaki eta Blanca eta ezkutatuta zeukatzen gazteetako bat. Kolpe latza inondik ere Jose Antonio eta Maitederrentzat –eta



«Korrika» euskararen aldeko lasterketaren lekukoa eramaten 1981ean

orobat Klaus Niebelentzat berarentzat–, Gertakari anker hark eragin zien zauri sakona sendatzeak luze jo zuen.

Franco hil ondoren, ESB (Euskal Sozialista Biltzarrea) sortu zuen 1976an, Txillardegiarekin eta beste zenbaitekin batera. Herri Batasuna koalizioan sartu zen ESB, eta Jose Antonio koalizioaren zerrendaburu aurkeztu zuten Gernikan 1979ko udal hauteskundeetan, bai eta Bizkaiko Batzar Na-



Jose Antoniok Beethoven miresten zuen. Argazkian haren jaiotetxearen aurrean ageri da, Bonn-en (1977ko ekaina)

gusietarako ere. Hartara, bi kargu horietan aritu zen bitarte labur batez –zinegotzia eta batzarkidea–. Bi-biak Gernikatik irten gabe bete zitzakeen –Gernikako udal-txean eta Gernikako Juntetxean–, baina Jose Antoniok hainbat proiektu zerabiltzan buruan, eta politikak eragotzi egiten zion proiektu horiei taxuz ekitea. Herri honi

egin beharreko ekarpena ez zen etorri, beraz, politikaren eskutik, ezpada kulturarenetik; zehazki, musikaren eta liburuen eskutik. Izan ere, Jose Antoniok Victor Hugoren (1802-1885) ahotan jartzen zuenaren arabera, musika da, hizkuntza baino gehiago, nazio bat bereizten duena.

## MUSIKA MAITE, LANDU ETA AZTERTU ZUEN GIZONA

Esan beharra dago Jose Antonio Arana Martixa nahiko etxezuloa zela; han, bere bulegoan, orduak eta orduak eman zitzakeen lanean, ordulariari ezertarako ere erreparatu gabe; eta han, etxeko jangelan, orduak eta orduak eman zitzakeen lagunekin hitz eta pitz, Maiteder emazteak prestatutako afari goxo-goxoen inguruan.

Halere, txiki-txikitatik jalgi zen plazara eta erakutsi zituen jendaurrean bere dohainak.

Jose Antoniok sei urte doi zituenean, batzokian irakurketa-lehiaketa bat antolatu zuten, eta berak irabazi zuen. Saria Seber Altubek eta Julio Bareñok –emaztea izango zenaren osabak– eman zioten. Ez zen




Aukera zuenean, Jose Antoniok pianoa jotzen zuen etxean

hori izan irabazi zuen lehiaketa bakarra. Urte batzuk geroago, abesbatzen lehiaketa antolatu zen herrian, eta orduko hartan Jose Antoniok ez ezik, bere neba-arreba Jabierrek eta Begoñak ere irabazi zuten lehiaketa, bakoitzak bere mailan. Musikak, izan ere, beregaineko garrantzia izan zuen Aranatarrenean, eta pianoa ez zen sekula falta izan, ez aitaita Meliton Martixaren etxean, ez Jose Antonio eta Maitederren etxean ere.

Arestian esan dugunez, hamaika urterekin apaiztegira joan zen, eta han egin zituen musikako lehen ikasketak, Julio Valdés

Goikoetxea musikagile eta organo-jotzailearekin. Seminariotik irten zenean buru-belarri ekin zion ikasteari, baina hori ez zen eragozpen izan herriko lagun-taldearekin beste zeregin batzuetan ere ibiltzeko. Lagun horien artean zegoen Bittor Olaeta, «Olaeta Balletak» eta «Elai-Alai» dantza-taldea sortu zituen Segundo Olaetaren semea. Lagun-arteko otxote bat sortu zuten, bai eta kontzertuak egiten hasi ere.

Juan Orueren *Naste borrhaste* zarzuelatxoia izan zen zortzikotearen ganorazko lehengo lana (lagunek orduan jarri zioten Jose Antoniori *Txabola* goitizena). Hurrengo urtean Pablo Sorozabalen *Katiuska* etorri zen, Gernikan ez ezik Bilboko Misericordia-etxean ere antzestu zutena.



Bogamazua izeneko zortzikote gernikarraren bi disko, 1963

Lehen talde informal hari segida ematera beste otxote bat etorri zen, urte batzuk geroago. Jose Antoniok sortu zuen, eta Bogamazua izena eman zion, zortzikotea osatzen zutenen abizenekin jolas eginez (Barreinkua, Omaetxebarria, Garai, Arzane, Maguna, Arrien, Zubiaurre, Unzeta eta Arana). Zortzikote hau saio serioagoa izan zen, lau disko grabatu zituzten-etaartzelona, 1963an: festetako kantuak, itsasoko kantuak, erlijio-kantuak eta, azkenik, Gabonetakoak. Horrela hasi zen Jose Antonio abesbatza-zuzendari lanetan eta herri-musikako lanak moldatzen.

Musika ikasketekin kezkatuta, Gernikan erdi mailako musika kontserbatorio bat eratzen saiatu zen. Egitasmoak kale egin zuen, baina 1970ean Udalaren Musika Akademia sortzea lortu zuen, udalaren musika-bandako zuzendari Teodoro Makazagarekin batera. Lau urte geroago, kantu gregorianoko Juan Ojanguren akademia sortu zuen, Gernikako Andra Mari parrokiako organo-jotzailearen gomutaz. Horrenbestez, bidea egiten ari zen arian-arian, eta, hala, 1978an, bere besoetakoa, bere kutuna sortu zuen: Andra Mari Ko-



Herri kantak harmonizatzen Olagorta baserrian  
(Natxitua, Bizkaia, 1973an)

rala. Abesbatzaren zuzendari izan zen hamar urtez, harik eta Euskaltzaindiak, 1988an, diruzain izendatu zuen arte. Bere ardura berri horrek, jakina, eragotzi egingen zion abesbatzaz arduratzen jarraitzea; halandaze, hamar urteko ume koxkorra





Andra Mari Koralak omenaldia egin zion 2010eko martxoan, abesbatzaren 30. urteurrenaren karietara, Gernika-Lumoko Lizeo antzokian

gazteen esku uzteko garaia heldu zela irizita, Fernando Abaunzak hartu zuen Jose Antonioren lekukoa.


Andra Mari Koralak bere bidea egiten jarraitu zuen, eta 2010eko martxoaren 13an, abesbatzaren 30. urteurrenaren karietara, omenaldi gogoangarria egin zioten koraleko kideek, herriko beste kultur eragile askorekin batera, hamar urtez abesbatzaren zuzendari izandako gure bidegileari. Omenaldia egin ziotenen artean zeuden, Andra Mari Koralez gain, Kultur Etxea, herriko euskaltegiak, Segundo Olaeta eta Juli Foruria musika eskolak, Gernikazarra Histo-

ria Taldea, *Aldaba* aldizkaria eta, nola ez, Marijesiak. Jose Antonio, izan ere, urte askoan izan zen *marijesia*, eta bera izan zen azterlan zorrotz eta fidagarrienak egin zituena Gabon aurreko bederatzi gauetako errondari buruz.

Omenaldi hori ez zen izan, ordea, musikaren arloan egindako lanaren ordainetan bizitzan egin zitzaion bakarra. Bilboko Udalak, adibidez, omenaldia eskaini zion 2002ko maiatzaren 17an Zazpi Kaleetako Bidebarrietako liburutegian, eta Eusko Ikaskuntzak, berriz, 2008ko ekainaren 27an, Bilboko Koral Elkartean.



Eusko Ikaskuntzak omenaldia egin zion Bilboko Korral Elkartean 2008an. Argazkian emaztea, seme-alabak, suhi-errainak, ilobak, bilobak, Klaus Niebel eta Bego arreba ageri dira Jose Antoniorekin batera



J. A. Aranaren *Música Vasca* liburua mugarría izan da euskal musikaren historian

Bi omenaldi horietako ardatz nagusia izan zen, nola ez, Arana Martixak euskal musikaren historiari egindako ekarpen ordainezina: *Música Vasca* liburua (1976). Liburu horren balioaz ohartarazte aldera, komeni da hona ekartzea Anton Zubikarai Bidebarrietako ekitaldi hartan esandakoa: «liburu honekin Jose Antoniok benetako mugarrí bat ezarri zuen euskal musikaren ikerketaren historian, ehunka datu solte, ezezagun eta sakabanatu modu koherente batean josiz eta antolatuz; [...] garrantzi eta kalitate neurrigabeko lana

egin zuen, bakarra eta aurrekaririk ga-bea musikaren didaktikari dagokionez». Beharbada, egindakoaz jakitun zelako, honako eskaintza hau jarri zuen liburuan, hartara dena esanda zegoelako:

*Euskalherrian  
sortu ninduten  
aita eta amari,  
Euskalherrian  
izaten laguntzen didan  
Maitederreri,  
Euskalherriari.*



# Euskalgintza-lanetan ibilbide luzea

2011ko urriaren 14an, Maiteder Bareño alargunak hunkituta jaso zuen Jose Antonioren izenean Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria

## HAINBAT TALDE ETA ERAKUNDEREKIN EGINDAKO AHALEGIN ETA EKINTZAK

Baina omenaldi guztiak ez zitzaizkion heldu bizirik zegoela. Eusko Ikaskuntzak 2010eko Manuel Lekuona Saria eman zion, «mende erdi luzean zehar euskal kultura-rekin izandako konpromisoaren eta lanaren onarpen gisa». Halabeharrak nahi izan zuen Jose Antonio saria jaso aurretik hil zedin; hori dela-eta, Eusko Ikaskuntzako lehendakari Jose Maria Muñoak Maiteder Bareño alargunari eman zion saria, 2011ko urriaren 14an, Bilboko Foru Aldundiaren Jauregian.

Eusko Ikaskuntzaren eta Jose Antonio Arana Martixaren arteko harremana, berriaz, aspaldikoa da. 1982an, esaterako, Adrian Zelaia *bidegile* eta legelari handiak Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusi izateko proposatu zuen, eta, proposamena aurrera atera ez bazen ere, 1987an Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko zuzendari izendatu zuten.

Harreman estu-estua izan zuen *Jakin* aldizkariarekin ere. Bere bihotzeko aldizkari horretan idatzi zuen lehenengo artikulua 1964koa da, eta, nola ez, Jose Antoniorengan gehien eragin zuenetariko bati dago eskainia: «Azkue jaunari omenaldia». Jose Antoniok

harreman oso estua izan zuen garai hartan Foruko frantziskotarretan ikasten ari zirenekin: Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, Joan Mari Torreal dai... Hortik etorri zen *Jakin* aldizkariarekiko lotura estu hori. Aldizkaria, zeina hasiera batean Arantzazuko ikasleen aldizkari gisa sortu baitzen, bide berriak hasi zen urratzen 1966an –teologia klasikotik teologia berrira nahiz giza eta gizarte zientzietara–. Aldaketa horretan, erabakigarria izan zen Karlos Santamariaren gidaritzapean Oñatin egin zen bilera bat, horretarako berariaz egindakoa; bertan ziren Rikardo Arregi, Joan Mari Torreal dai, Jose Antonio Arana Martixa eta beste zenbait kultur eragile.

Jose Antoniok, esan bezala, hainbat omenaldi jaso zituen bizitzan, eta den-denak biziki eskertu eta estimatu zituen, baina erratzeko beldurrik gabe esan daiteke Jose Antonioren tzat bereziki hunkigarria izan zela *Jakinek* 2007an egin zion omenaldi xumea.

*Jakinerako* bere lehen artikulua idatzi zuen urte berean –1964an–, Txillardegik Baionan antolatu zuen Idazleen Biltzarrean parte hartu zuen.



*Jakin* aldizkariak ere omenaldia egin zion 2007ko urrian. Argazkian Joxe Azurmendiren ondoan eserita

Hurrengo urteetan ez zen horrenbeste nabarmendu jendaurrean, eta urte horietako lan isilaren fruitua 1976an iritsi zen. Urte horretakoa da *Música Vasca* liburuaren lehen argitaraldia, eta urte horretan berean antolatu zuen Jose Antoniok *Sakonki* izeneko ikastaroa Gernikan. Antolatzaileen artean ageri dira San Fidel Ikastetxeko Kultur Batzordea, RSBAP-Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Euskaltzaindia eta *Jakin*; guztien atzean zegoena, ordea, Jose Antonio zen. Ikastaroa 1976ko abenduan hasi eta 1977ko ekainean bukatu zen. Bitarte horretan, garaiko euskal intelektualik nabarmenetako asko eta asko hurbildu ziren Gernikako Gizarte Etxeko zinemara; batzuk beren hitzaldia ematera, eta

beste asko ikusle moduan parte hartzera. Ez ditugu denak ekarriko hona, baina han izan ziren, besteak beste, aita Villasante, Gregorio Monreal, Juan San Martin, Adrian Zelaia, Joan Mari Torrealdai, Txillardegui, Henrike Knörr, Edorta Kortadi... eta Jose Antonio Arana Martixa bera. Hitzaldiez gain, kontzertuak, dantza-emanaldiak, antzerkia eta beste zenbait ekitaldi egin ziren. Alegia, sakonki aztertu zen euskal kultura une hartan zertan zen. Eta hura dena iragartzeko, zer hobe Arantzazuko *Goiko Benta* tabernako hormatik maileguan hartutako afixa, Remigio Mendiburuk Oteizaren irudiarekin eta ondoko bertsoarekin egina: *Sakonki maite*



1976an, *Sakonki* kultur zikloa iragartzeko baliatu zuen Aranak Arantzazuko *Goiko Benta* ostatutik hartutako afixa hau

*det nere herria, sakonki amorrazten dit nere herriak.*

Ikastaro mamitsu hura antolatzean Jose Antoniok erakutsitako iaiotasuna eta zorrotasuna –bi ezaugarri horiek bere lan guztietan ageri dira– ez ziren oharkabean igaro. Halatan, hurrengo urtean, Euskaltzaindiak kontratatu zuen, Akademiaren liburutegiaz arduratu zedin.

## EUSKALTZAINDIA ETA AZKUE BIBLIOTEKA

Euskaltzaindiak liburuzain izateko kontratatu zuen arren, Jose Antonio berehala hasi zen etxe barruko beste auzi askoren ardurara




Nazioarteko Euskararien Jardunaldietan, Seber Altuberi buruzko hitzaldia irakurtzen Gernikako Juntetxean (1980)

bere gain hartzen, eta bere lan txukunaren ordainetan euskaltzain urgazle izendatu zuten handik urtebetera, 1979an. Hurrengo urtean, berriz, lehenago *Sakonki* ikastaroa antolatzean bereganatutako eskarmentu guztia erabili behar izan zuen Nazioarteko Euskalarien Jardunaldiak antolatzen. Berari eta Juan San Martini egokitu zitzaien Gernika eta Leioa bitartean egin ziren jardunaldi garrantzitsu haiek antolatzea, eta zeregin horretan laguntza handikoak izan ziren Jose Luis Lizundia eta Bilboko egoitzan Jose Antonioren inguruan sortzen ari zen lan-talde sendoa, zeinean toki berezia izan baitzuen Juanjo Zearreta zornotzarrak (1947-2009).

Euskaltzaindiaren liburutegia atontzeak lan handia eman zion. Txiki samarra zen Bilboko Erribera kaleko egoitza zaharrean zegoen liburutegia, bi mila ale ere ez baitzituen edukiko, baina apur hura ordenan jarri beharra zegoen eta, halaber, funtsak bildu beharra zegoen. Gero eta euskaltzale gehiago hurbiltzen zen liburutegira, eta Akademiak tresna baliagarri bat eskaini behar zien haiei. Orduan ere, *Música Vasca* liburua egiteko jarraitu zuen plangintza sistematiko bera abiarazi behar izan zuen

Arana Martixak: han-hemenka sakabana-tutako funtsak bilatu, bildu eta antolatu. Lan nekeza, inondik ere, pertsona bakar batentzat; beharrik gure *bidegileak* beti jakin zuen konfiantzazko jendeaz inguratzen; halatan, bere ondoan eduki zituen beti Nere Altuna azpeitiarra eta Josune Olabarria, zeina Jose Antonioren idazkari izan baitzen Gernikan, 1969tik aitzina. Gero, Cristina Arana alaba batuko zitzaion taldeari. Talde sendoa zen, eta gogor egin zuten lan: ikusi besterik ez dago Azkue liburutegia zer bilakatu den.

Kontakizun honen hasieran esan dugunez, patuak beste *bidegile* batzuk jarritu zituen Arana Martixaren bidean, oharka-



Euskalarien  
Nazioarteko  
Jardunaldien  
afixa

bean lez, haren bizitzaren une jakinetan. Une horietako bat 1950ean gertatu zen. Deustuko Unibertsitatean ikasten ari zela-rik, Erribera kaleko liburutegira joan zen irakasle baten gomendioz, eta han gizon itxuraz ozpindu bat aurkitu zuen, ikusme-na erdi galdurik irakurtzeko ahaleginak egiten. Arana Martixak halaxe ezagutu zuen R. M. Azkue. Apaiz lekeitiarra Ibai-zabal ibaira erori eta hil egin zen, handik urtebetera. Jose Antoniok hainbesteko miresmena zion ezen haren izena jarri bai-tzion Euskaltzaindiaren liburutegiari, bere ustez «ez delako inoiz egon Euskal Herrian



Azkue Bibliotekako lan taldearekin (Pruden Gartzia, Josune Olabarria, Cristina Arana eta Nere Altuna), bere bibliotekaren katalogoa aurkeztu zenean. M<sup>a</sup> Ángeles González ere ageri da, berak egin baitzuen katalogazio lana

Azkuek beste lan egingo duena euskararen eta euskal kulturaren alde».

Arana Martixak Azkue Bibliotekan egin zuen lehendabiziko lanetako bat izan zen, hain zuzen ere, Azkueren artxiboa orde-natu eta apaindu, eta horren ondotik beste hainbeste etorri ziren: Juan Carlos Guerra-rena, Jon Bilbaorena, Jokin Zaitegirena, Odon Apraizena... eta, oroz gain, Louis Lucien Bonaparte printzearena (1813-1891). Bonaparte printzeak lan aparta egin zuen hizkuntzalaritzaren arloan, eta, jakina denez, euskarak bereziki zor dio euskalkien lehen sailkapen zientifikoa egin izana. Ha-ren lana, ordea, galtzeko zorian egon zen, bere alarguna hil zenean salgai jarri zirelako haren lan guztiak Londresen. Azkuek Bo-naparteren artxibo osoa erostea lortu zuen Hegoaldeko lau diputazioen laguntzari esker, baina bakoitzak bereari eutsi nahi zionez, funtsak lau zatitan banatuta gelditu ziren. Arana Martixak, funts horien balioaz jakitun, Euskal Herrian ordura arte seku-la egin gabeko ahaleginean saiatu zen, eta Bonaparteren funts guztiak mikrofilmaz lortu zuen, Chicagoko Newberry Library-n zegoen Bonaparteren liburutegi osoa bar-

ne. Hartara, Arana Martixak beregaineko balioa duen tresna bat jarri zuen orduko eta geroko filologoen eta ikertzaileen eskura.

Arana Martixaren bitartekotza erabakigarria izan zen, halaber, Euskaltzaindiak eta Bergarako Olaso Dorrea fundazioak hitzarmen bat sina zezaten 2008an, zeinari esker Bilboko egoitzara eraman baitzen Georges Lacomberen ondare bibliografiko paregabea: Leizarragaren *Testamentu Berria*, Axularren *Guero*, Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae* edota Ziburuko Etxeberriren *Manual devotioezcoa* lehen-dabiziko edizioetan.

Beste batzuen artxiboak eta funtsak biltzeaz gain, urtea joan urtea etorri Arana Martixak bere artxibo berekia ere taxutu zuen, eta ez nolana hiko gainera. Erretiroa hartu zuenean, bere musika-artxiboa Errenteriako ERESBILi laga zion, eta bere biblioteka, berriz, Euskaltzaindiari.

Baina Arana Martixak Azkue liburutegian egin zuen lana ez zen mugatu liburutegia funtsez hornitzera –bi mila ingururekin hartu zuen, eta hirurogei mila ingurukoa zen, berriz, lekukoa Pruden Gartzia oñatiarrari eman zionean–. Arana Martixak beste bi



Euskaltzainak, Gernikako arbolapean, Arana Martixaren sarrera hitzaldiaren egunean (1989-07-28)

erronka handi ezarri zizkion Azkue Bibliotekari: liburutegia informatizatzea eta euskaraz katalogatzeko arauak ezartzea. Bi erronka horiek gainditu izanaren merezimendua, neurri handi-handi batean, Arana Martixarena izan zen, iparra argi eta garbi jartzeagatik: lana eskakizun moderno eta estandar guztien arabera egin behar zen, eta euskaraz egin behar zen, goitik behera euskaraz.

Euskaltzaindiari egindako ekarpenaren saria 1988an etorri zitzaion, Akademiak euskaltzain oso izendatu zuenean. Sarrera-hitzaldia jaioterrian egin zuen 1989ko uztailaren 28an: «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat». Itxura batean, besterik





Sarrera hitzaldia Gernikan irakurri zuen egunean

gabeko lana zen, baina kontuan hartuta ordura arte inork ez zuela horri buruzko azterlanik patxadaz egin, lan zinez korapilatsu eta zaila izan zen, zeren «eragozpenak, oztopoak, zalantzak, erantzun gabeko galderak, hutsuneak eta errakuntzak aurkitzen nituen ikerketaren hariari eusten nionean». Lanaren garrantziaz jabetzeko, hara zer erantzun zion aita Villasantek sarrera hitzaldiari: «Erakundearen historiarako oinarri-oinarritzkoa da zuk hartu duzun gaia, argitzen gaitza edo ezinekoa zirudiena. Lehen uher eta nahasi ziren gauzak, baina zuk zeharo argitu dituzu. Ez da makala izan lan honekin Euskaltzaindiari egin diozun mesedea».

Lan hori ez zen makala izan, ez. Eta ez zen makala izan, ezta ere, 1988an diruzain izendatu zutenean Arana Martixak bere gain hartu behar izan zuen ardura. Akade-

miaren etorkizun ekonomikoa kolokan zegoen garai hartan, eta premiazkoa zen herri aginteekin hitzarmen bat sinatzea, Euskaltzaindia eraginkorra eta modernoa izango bazen. Hitzarmena 1989an izenpetu zen.

Haatik, Euskaltzaindiaren aro berri horren zimenduak azken oinarria falta zuen: egoitza berria. Egoitza duin baten premia aspaldikoa zen, baina ametsa ezin izan zen gauzatu harik eta Bizkaiko ahaldun nagusi Jose Maria Makuak gaiari heldu zion arte eta 1985ean Euskaltzaindiari Bilboko Plaza Barriko eraikina lagatzeko hitzarmena sinatu zen arte. Arana Martixaren eta Makua ahaldun nagusiaren arteko harremana lehendik zetorren, Jose Antonio Bizkaiko Batzar Nagusietan egona baitzen aurreko legegintzaldian. Ezberdintasun ideologikoak gorabehera, bien artean bazen halako konplizitate bat, akordiorako bidea jorratzen lagundu zuena. Egoitza berriaren ateak 1991n ireki zirenean jarrita zeuden, beraz, oinarriak, Euskaltzaindiak etorkizuneko erronka berriei aurre egin ziezaien.

Akademiaren historian lehen aldiz, Euskaltzaindiaren egoitzak hogeita lau aulkiko mahai handi bat izango zuen, euskaltzain bakoitzak bere eserlekua izan zezan,



Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzaren inaugurazioan (1991), agintarien aurrean hitzaldia irakurtzen



Euskaltzaindiko zuzendaritza lanean, Bilboko Elkano kaleko egoitzan (1990eko uztaila): Zearreta, Lizundia, Lekuona, Haritschelhar, Satrustegi eta Arana Martixa

zenbaki eta guzti. Arana Martixa harro-harro eseriko zen handik aurrera Euskaltzaindiko 5. aulkian, zeina Juan Gorostia-garen ordezkari baitzuen gure *bidegileak*; eta Gorostiagak, berriz, Seber Altuberen ordezkari. Ez da harritzekoa, beraz, aita Villasantek behin idatzi izana Jose Antonio Seberren fotokopia zela.

1996an, hirurogeita bost urte betetzean, Jose Antoniok erretiroa hartu zuen Azkue Bibliotekan, nahiz eta diruzain izaten jarraitu zuen 2004ra arte. Bi urte geroago, 75 urte betetzean, euskaltzain emeritu izendatu zuten, urte horretan berean Akademiaren estatutuetan egindako aldaketa bati jarraikiz.

Aurretik, lan eta proiektu ugari zituen egiteko, baina ezin denetara eta denei heldu. 2011ko apirilaren 27an Heriok berekin eramanez nahi izan zuen Jose Antonio. Ger-

nikako bonbardaketaren 74. urteurrenaren biharamuna zen.

Etxeko bulegoko apaletan gelditu ziren, horrenbestez, hainbat eta hainbat fitxa, artxibo, ohar solte... Jose Antoniok ez beste inork sailkatu eta atondu ezin zituenak. Haiekin batera, editoreen elkarteak emandako *Urrezko Luma* saria eta Xabier Amurizak Jose Antoniori, erretiroa hartu zuenean, eskainitako bertso hau:

*Ai gure Azkue Biblio-Ganbara  
ehun mila aleko lana  
galdezka dago: «Non dago gure  
uzaba maite izana?»*

*Esan deutsagu: «Liberatu da  
Jose Antonio Arana jauna!»  
eta dinosku: «Zelan joan da  
emon barik mosu bana?»*

*Ez ein negarrik, etorriko da  
zu zara bere laztana.*

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Familiari
- Azkue Bibliotekako langileei
- Jon Bagues Erriondori
- Ander Irizar Apaolaza lankideari

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
ISBN: 978-84-457-3330-1 (Lan osoarena)  
978-84-457-3333-2  
L.G.: VI 865/2013



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA